



# Zer egingo zenuke orube honetan?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- LENGOAIA.
- HIZKUNTZA.
- TUTORETZA.

## HELBURUAK

- Ikasleengan, entzuteko jarrera sustatzea.
- Ikasgelako kide guzti-guztien parte-hartzea bultzatzea.
- Ikaskideen gustuak, lehentasunak eta beharrak ezagutzen saiatzea.

## MATERIALAK

- ◆ Marrazteko materiala, eta elementuak ebaki eta itsasteko papera.
- ◆ Artaziak, kola.

## Jarduera, urratsez urrats

Taldekideak binaka jesarriko dira, aurrez aurre, mahai baten inguruan.

Zuhaitz bat eta txabola kalamastra bat baino ez dituen orube baten irudiaren kopiak banatuko dizkiegu.

Banaka, itxurazko orube horretan, gustura egoteko beharko lituzketen hamar gauza pentsatuko dituzte, eta eman zaien kopiaren gainean marrazten saiatuko dira (adibidez, landareak, barazkiak edota zuhaitzak; habiak egiteko kaxak...). Irakasleak baloratuko du argi-

bide horiek eman ala inolako baldintzarik ez ezartzearen komenigarritasuna.

Guztiek euren hamar gauzak aukeratuta, nork bere bikotekideari azaldu edota deskribatu beharko dizkio, baina bikotekideak ezin izango du ezer esan, arretaz entzun baino. Gero, paperak trukatu dituzte, bikotekideari norberaren lekua bisitatzea gonbidatu. Ondoren, launa pertsonako (bina bikoteko) taldeak egingo ditugu, eta bakoitzak bere bikoitekiaren leku ideiala nolakoa den deskribatu eta horren gustuak, lehentasunak, interesak eta abar azalduko dizkie gainerakoei.



### Oharra:

Osagarritzat honako ipuin hau irakurtzea gomendatzen dugu: **El misterio de la huerta de los membrillos** (Espainiako ingurumen-hezkuntzaren Liburu Zurian oinarritua). Ingurumen Ministerioa. Madril, 1999.